

Herritarren mahaia

Ekainaren 19an ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean

ORDUA: 19:00etatik 20:45ak arte

BERTARATUTAKOAK:

Begoña Beobide (Loiola Berrikuntza Fundazioa), Alberto Izagirre (hezkuntza), Jaione Valverde (herritarra/Iraurgi Lantzen), Ibon Odriozola (CIDETEC/IK4), Garbiñe Bereziartua (Zero Zabor), José M^a Aizpurua (Baserritik.com), Amaia Irazusta (Biourkizu), Begoña Sarasua (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai), Idoia Agirre ((Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai), Araceli Ardanaz (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai), Miren Alcedo (Elkar-ekin taldea), Jon Garagarza (Elkar-ekin taldea), Xabier Mujika (Matxinbenta), Mari Jose Azkue (Lasao), Felix Bidasoro (herritarra), Eneko Etxeberria (Alkatea), Izaskun Ceciaga (udal teknikaria).

DINAMIZATZAILEAK:

Ana López eta Ainhoa Mitxelena (Minuartia Enea/Ikertalde laguntza teknikoa)

GAI ORDENA

1. Formulazio estrategikoa osatzeko dinamika azaldu
2. Ekintza Planaren helburuak eta edukiak azaldu
3. Ekintza Planaren inguruko inpresioak eta ekarpenak jaso

LABURPENA

Bilera hasi baino lehen, aurreikusitako gai ordena aldatzea erabakitzen da, formulazio estrategikoaren inguruko dinamika azkeneko puntura pasatuz. Azkenean, Ekintza Planaren inguruko eztabaida luzatzen denez, zati hori hurrengo saioan egitea erabakitzen da.

1. Ekintza Planaren helburuak eta edukiak azaldu

Hasteko, Alkateak bertaratutakoei ongi etorria ematen die. Prozesuaren egoeraren berri ematen du, Ekintza Plan bat jada osatu dela aipatuz eta udalerriko eragile sozial eta ekonomikoekin partekatu eta beraien ekarpenekin aberastu nahi dela azalduz.

Ekintza Planaren nondik norakoak azaltzen hasi baino lehen eta honen edukiak eta helburuak hobeto uler daitezen, Azpeitia 2025 prozesuaren berezitasunak gogoratzen dira. Plan Estrategikoa bi planen batura izango dela azaltzen da: 2010ean onartutako Tokiko Agenda 21eko ingurumeneko Ekintza Plana eta arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen Plan berria (prozesu honen bitartez osatzen ari dena). Hala ere, ingurumen gaiak jorratzen dituen plana modu partzialean eguneratzen ari dela aipatzen da, energia eta hondakinei buruzko helburuak eta ekintzak berrikusiz eta egungo egoerara egokituz.



Honekin lotuta, Alkateak eta Ingurumen Teknikariak, hondakinen gaia sakonean lantzeko asmoa duela azaltzen dute, horretarako udazkena aldera herritarrekin bilerak antolatuko direla aipatuz.

Jarraian, Planaren egitura eta eduki nagusiak azaltzen dira. Plana ondoko **5 lerro estrategikoetan** egituratzen da:

- o **1. LERRO ESTRATEGIKOA:** AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ
- o **2. LERRO ESTRATEGIKOA:** HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ
- o **3. LERRO ESTRATEGIKOA:** HEZKUNTZA ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA ETA EUKARAREN SUSTAPENA
- o **4. LERRO ESTRATEGIKOA:** HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKI BAT DISEINATU ETA ESKAINI
- o **5. LERRO ESTRATEGIKOA:** ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIAL BAT SUSTATU, AZPEITIAK ORORI ETXEBIZITZA BAT IZATEKO AUKERA ESKAINIZ

Lerro estrategiko bakoitzak programa ezberdinak jasotzen ditu eta, hauen barne, ekintza zehatzak definitzen dira, guztira, 19 programa eta 114 ekintza proposatzen direlarik.

Laguntza teknikoak, Ekintza Plan guztia azaltzen du lerroz lerro. Horrekin hasi baino lehen, laguntza teknikoak gonbidapenarekin batera lerro estrategikoak eta programak soilik bidali zaizkiela komentatzen du, planteamendu orokorra zein den aurretik jakinarazi arren. Proposatzen diren ekintzen zehazpenak bileran bertan azaltzen dira. Ondoren, bertaratutakoek ekarpenak egiteko 15 egun izango dituztela esaten da.

Jarraian, Planaren azalpenaren laburpena egiten da:

1. LERRO ESTRATEGIKOA: AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ

- Lehenengo lerro hau Ekintza Planean pisu handiena duena da, izan ere, datozen urteei begira udalerriko garapen ekonomikoa bultzatzeko planteamendua jasotzen du. Eskualde mailan sektore ekonomiko guztiak bultzatu eta hauen lehiakortasuna sustatzen laguntzen duten erakunde ezberdinak daude, ez ordea udal mailan, non ez dagoen sustapen ekonomikoa buruzko sail edo egitura propiorik. Horiek horrela, eta honen beharra sumatuta, lehenengo programa gainontzeko guztien oinarria dela azaltzen da.
- Ondoren, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5 programek, udalerriko sektore ekonomiko ezberdinak bultzatzeko ekintzak jasotzen dituzte: nekazar eremuan, sektore industrialean, merkataritzan eta turismo arloan, hain zuzen ere.
- Azkeneko hiruek, orokorrean, sektore guztietan enplegua sortu eta lan merkaturatzea erraztu, ekintzailetasuna bultzatu eta iraunkortasun zein berdintasun baloreak enpresa arloan txertatzea dute helburu.

2. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ

- Lerro honetan sei programa planteatzen dira. Honetan ere, lehenengo programak udal barneko egitura eta, batez ere, sail honen irudia hobetzeko buruzko ekintzak jasotzen ditu. Zentzu honetan, diruz laguntzeaz gain, herritarrei beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen zaizkiela ezagutarazi nahi zaie herritarrei.
- Ondorengo programak gizarte segmentu ezberdinetara zuzentzen dira: hirugarren adina, haur, nerabe eta gazteak eta immigranteak besteak beste. Immigranteei dagokienez, politika asistentzialetatik politika interbentzionistetarako pausua ematean jartzen da arreta.
- Bestalde, parekidetasunaren aldeko apustu sendoa egitea proposatzen da, udal barnetik hasita. Zentzu honetan, gai hau guztiz zeharkakoa denez, Plan osoan zehar berdintasun ikuspegia txertatu dela aipatzen da.
- Honetaz gain, herritarren artean zibismo baloreak eta elkarbizitza sustatzeko ekintza ezberdinak ere proposatzen dira.

3. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA ETA EUSKARAREN SUSTAPENA

- Lerro honek 2 programa ditu, lehena garapen profesionala eta langabetuen lan merkaturatzea errazteko dagokion heziketa sustatzea bilatzen duena eta, bigarrena, euskararen arloan aurrerapausoak ematea bilatzen duena.
- Hezkuntza eskaintzari dagokionez, hau tokiko enpresen beharretara ahalik eta modu aproposenean egokitzea planteatzen da, lanbide heziketan arreta berezia jartzen delarik. Gai hau parte-hartze saioetan behin eta berriz atera den puntu nagusienetarikoa bat dela gogoratzen da.
- Euskarari dagokionez, Azpeitian euskararen erabilera oso altua dela aipatzen da (Euskadi mailan altuenetarikoa bat). Honek beste tokietan eman ezin diren pausoak emateko aukera eskaintzen du. Zentzu honetan, euskararen erabilera lan munduan sustatzea proposatzen da, hau, euskara gutxien erabiltzen den eremua baita. Honetaz gain, 4. profilerak heltzeko baliabideak hala nahi duen herritar ororen esku jarri eta sustapen lana egitea planteatzen da.

4. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKI BAT DISEINATU ETA ESKAINI

- Lerro honek ere bi programa jasotzen ditu; bata herri mailan kultura sustatzeko helburua du eta, besteak kirol ekipamenduak eta eskaintza egungo eskaerei egokitzea.
- Kultura arloan, programazio bateratua lantzean jartzen du atentzioa (Kultura saila, Sanagustin eta gainerako elkarte eta sailek elkarlanean), bertan Kultur Mahaiaren inplikazioa eta jarraipen zuzena bultzatuz.
- Kirol eremuari dagokionez, alde batetik Plan bat garatzea proposatzen da, gai honetan jarraitu beharreko ildo edo lerro nagusiak eta plangintza zehatz bat finkatzeko asmoz. Bestalde, beste ekintzen artean, kirol eskaintza egungo eskaerari egokitzea planteatzen da.

5. LERRO ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIAL BAT SUSTATU, AZPEITIAK ORORI ETXEBIZITZA BAT IZATEKO AUKERA ESKAINIZ

- Azkeneko lerro honetan programa bakar bat dago, etxebizitza sozialak eta alokairua sustatzeko ekintza ezberdinak jasotzen dituena.
- Arlo honetan, Azpeitian etxebizitzaren alokairurako ohitura gutxi dagoela aipatzen da. Honen inguruko sentsibilizazioa indartzea planteatzen da. Eta honekin zuzenean lotuta, udalerrian hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea errazteko neurri ezberdinak sustatzea proposatzen da.

2. Ekintza Planaren inguruko inpresioak eta ekarpenak jaso

Ondoren, azaldutakoaren inguruko iritzia zein den galdetzen da eta norbaitek ekarpen zehatzak baldin baditu, bertan ere egin ditzakeela esaten da.

Hasteko, Biourkizu-ko Amaia Irazustak berak dakarren planteamendua azaltzen du, bertaratutakoei horren kopia bana emanez. Planteamendu honek sektore ezberdinak jorratzen ditu (hondakinak, turismoa, kultura, kirola, hezkuntza,... etab.). Sakonean, proposamen honek herritar guztien behar minimoak bermatzea bilatzen du guztien arteko elkarlana bultzatuz eta iraunkortasuna bere osotasunean planaren ardatz bezala finkatuz.

Laguntza teknikoak orokorrean planteamendua aurkeztutako Ekintza Planarekin bat datorrela esaten du, kasu batzuetan iraunkortasunaren ildotik doazen helburuak direla eta beste kasuetan ekimenak “nola bidera daitezkeenaren inguruko” ideiak izan daitezkeela aipatuz.

Honen inguruan eztabaidarako bi gai nagusi ateratzen dira:

- Udalak langabezian dauden bizilagunak kontratatzeko proposamena.
Alkateak hau ezinezkoa dela aipatzen du.
- Diru-laguntzak jasotzen dituztenak kontrolatu eta udalerriko onurako lanak egitera behartzeko proposamena.
Azken honetan, maila ezberdinetan mahai gainean dagoen eztabaida bat dela esaten du alkateak, kontu handiz tratatu beharreko gaia dela aipatuz.

Honekin lotuta, auzolana edo lan boluntarioa ere berreskuratu behar izango litzatekeela komentatzen da, bestela hainbat gauza egin gabe gelditzeko arriskua egon daitekeelako.

Honetaz gain, Planaren epea luzeegia dela eta dagoeneko egoera ekonomikoari lotutako oso larriak diren gaiei heldu behar zaiela aipatzen da. Alkateak udalak talka-plan bat edo “Plan de Choque” bat martxan jarri berri duela esaten du. Plan honek ekimen ugari jasotzen ditu udalerrian bertan enplegua sustatzeko helburuarekin. Bestalde, laguntza teknikoak bertaratutakoei gogorarazten die Ekintza Planean jasoko diren ekintzak epe motz, ertain eta luzerako planteatuko direla.

Ondoren, Elkar-ekin taldeko Jon Garagarzak, Azpeitiko egoera sozial eta ekonomikoa hain larria denez, beraiek emergentzi kolektiboei laguntza emateko proposamenak lantzen ari direla azaltzen du, irabazi-asmorik gabeko entitate baten bitartez.

Jarraian, Planaren epeei buruz galdetzen da, ea noiz onartzeko asmoa dagoen eta ekarpenak barneratzeko zenbateraino dagoen irekita galdetuz. Laguntza teknikoak formalki epe batzuk bete behar direla azaltzen du eta, berez, uztailaren erdialderako amaituta egon beharko lukeela aipatzen du. Hasieran aipatu den bezala, 15 egun emango dira ekarpenak jasotzeko. Hala ere, Plana “bizia” mantenduko dela aipatzen da, hau da, urtero ebaluatuko da eta ekintzak aldatzeko eta proposamen berriak sartzeko aukera egongo da.

Hurrengo bilera uztailaren lehenengo hamabostaldian izango dela aipatzen da.

Bertaratutakoei eskerrak emanez, bilerari amaiera ematen zaio.